

EUOPAR BATASUNAZ KANPOKO FAKULTATIBO MEDIKOAK ETA ERIZAINAK ALDI BATERAKO KONTRATAZIO-ZERRENDETAN IZENA EMATEKO ESKABIDEA EGITEKO NAZIONALITATE-BETEKIZUNETIK SALBUESTEIA

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak beste estatu batzuetako herritarrak enplegu publikora iristeko aukera jasotzen du, eta xedatzen du nazionalitate-betekizunetik salbuetsi ahal izango direla Osakidetzako espezialista medikoak eta erizainak, Eusko Legebiltzarraren lege baten bitartez.

2023ko azaroaren 30ean, Euskadiko Osasun Publikoari buruzko 13/2003 Legea onetsi zen Eusko Legebiltzarrean (abenduaren 12ko EHAA 235. zk.). Horren bidez seigarren xedapen gehigarri bat gehitu zaio *Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeari*. Xedapen horren bitartez, interes orokorreko arrazoiak direla medio, Osakidetzaren mendeko erakundeetan, espezialista medikoen eta erizaintzako langileen zenbait kategoriatan aldi baterako estatutupeko langile izateko nazionalitate-betekizunetik salbuesteko aukera dago.

Arau-aldaketa hori laster sartuko da indarrean, 2024ko urtarrilaren 11n. Hori dela eta, jakinarazten da Osakidetzaren **aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko** aukera dutela I. eranskinean zerrendatutako espezialista medikoen eta erizaintzako langileen kategorietara/lanpostu funtzionaletara sartzeko homologatutako titulazioaren baldintza betetzen duten pertsona guztiek, nazionalitatearen baldintza betetzen ez badute ere (Europar Batasunaz kanpoko langileak). Osakidetzako aldi baterako kontratazio-zerrendak **beti daude irekita**, eta, beraz, izena emateko eskabidea edozein unetan egin daiteke, aldi baterako kontratazioaren web-orriaren bidez.

"*Izena emateko eskaera egiteko jarraibideak*" orrialde berean daude argitaratuta, "*dokumentu interesgarriak*" atalean:

<https://www.osakidetza.euskadi.eus/aldi-baterako-kontratazioa/webosk00-procon/eu/>

Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan Osakidetzako Kontratazio Zerbitzuarekin:

2021LP-LC@osakidetza.eus

I. ERANSKINA

Lanbide-taldea	Kontratazio-zerrendak
A1	Alergologiako FEM
A1	Anatomia Patologikoko FEM
A1	Anestesiologiako eta Bizkorketako FEM
A1	Angiologiako eta Kirurgia Baskularreko FEM
A1	Digestio Aparatuko FEM
A1	Kardiologiako FEM
A1	Bihotz Hodietako Kirurgiako FEM
A1	Kirurgia Orokorreko eta Digestio-aparatuko FEM
A1	Ahoko eta Aurpegi Masailtako Kirurgiako FEM
A1	Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako FEM
A1	Kirurgia Pediatrikoko FEM
A1	Kirurgia Plastikoko, Estetikoko eta Konpontzaileko FEM
A1	Toraxeko Kirurgiako FEM
A1	Zainketa Aringarrien FEM
A1	Familia Medikuntzako FEM - LMAT
A1	Dermatologia Mediko Kirurgikoko eta Benereologiako FEM
A1	Emergentzietako FEM
A1	Endokrinologiako eta Nutrizioko FEM
A1	Gaixotasun Infekziosoen Arloko FEM
A1	Epidemiologia Klinikoko FEM
A1	Farmakologia Klinikoko FEM
A1	Hematologiako eta Hemoterapiako FEM
A1	Etxeko Ospitalizazioko FEM
A1	Laneko Medikuntzako FEM
A1	Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko FEM
A1	Medikuntza Intentsiboko FEM
A1	Barne Medikuntzako FEM
A1	Medikuntza Nuklearreko FEM
A1	Prebentzio Medikuntzako eta Osasun Publikoko FEM
A1	Nefrologiako FEM
A1	Pneumologiako FEM

A1	Neurokirurgiako FEM
A1	Neurolofisiologia Klinikoko FEM
A1	Neurologiako FEM
A1	Obstetriziako eta Ginekologiako FEM
A1	Oftalmologiako FEM
A1	Onkologia Medikoko FEM
A1	Erradioterapia Onkologikoko FEM
A1	Otorrinolaringologiako FEM
A1	Pediatriako FEM - LMAT
A1	Ospitale Pediatriako FEM
A1	Psikiatriako FEM
A1	Haur Psikiatriako FEM
A1	Erradiodiagnostikoko FEM
A1	Erreumatologiako FEM
A1	KSUko FEM
A1	Ospitaleko Larrialdietako FEM
A1	Urologiako FEM
A1	Analisi Klinikoko FEM
A1	Biokimika Klinikoko FEM
A1	Immunologiako FEM
A1	Mikrobiologiako eta Parasitologiako FEM
Lanbide-taldea	Kontratazio-zerrendak
B1	Lan Osasuneko Erizaina
B1	Osasun Mentaleko erizaina
B1	Emagina
